

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 48/2019 FORU DEKRETUA, maiatzaren 14koa. Honen bidez, 2019ko ekitaldian Bizkaian arte eszenikoen (antzerkia eta dantza) ikuskitzuna sustatzeko diru-laguntza foralen oinarriak eta deialdia onesten dira.**

Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeek eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, bere 7.a.13) artikuluan, eskumen eskusiboa ematen die lurralde historikoei, besteak beste, Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultur erakundeak sortu eta mantentzeko. Eskumen hori betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumeneren barruan, kultura diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardute-lerro batzuk dauzka abian.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, gure kulturaren ezagutza eta garapenetik abiatuta eta beste kultura guztiei ateak zabalduz.

Eskumen-esparru horretan oinarrituta, Bizkaiko Foru Aldundiren ustez, Bizkaiko antzerki eta dantza konpainiak lurralde honetako kultur elkarten artean funtsezkoak dira, oro har, kultura sustatu, bultzatu eta hedatzeko eta, bereziki, arte eszenikoak zabaltzeko.

Horregatik, Lurralde Historikoan halako konpainien sorrera bultzatzeko, daudenak mantentzea sustatzeko eta haien ikuskitzuna eszenikoak zabaltzen laguntzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza foralen deialdi bat argitaratzen du, urtero, foru-dekretu bidez.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru-dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeek Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuaren eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko maiatzaren 14ko bileran aztertu ondoren, honako hau



XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra.—Foru Aldundiaren diru-laguntza batzuen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea**

Onetsi egiten dira 2019ko ekitaldian arte eszenikoen (antzerkia eta dantza) ikuskitzuzunak sustatzeko Euskara eta Kultura Foru Sailak emango dituen diru-laguntza foralen oinarriak eta deialdia.

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea**

1. Foru dekretu honen arabera diru-laguntza jaso dezakeen jarduna Bizkaiko Lurralde Historikoan arte eszenikoen (antzerkia eta dantza) sustapena da.

Diru-laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2019ko ekitaldiaren barruan gauzatu beharko dira.

2. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

- a) Antzerki- eta dantza-talde amateurrek egiten dituzten egitarauak eta proiektuak.
- b) Titulartasun publiko edo pribatuko arte dramatikoaren eskolek egiten dituzten programak.
- c) Arte eszenikoen arloetan prestakuntza emateko bideratutako programak edo proiektuak, bai eta ikuskizun eszenikoak ekoiztea xede dutenak ere.
- d) Legez antzerki- edo dantza-enpresatzat jotzen ez diren entitate edo erakunde publiko edo pribatuen programak.
- e) Antzerki- eta dantza-ikuskizun eszenikoetarako aretoen enpresaburuek, jabeek edo errentariek egiten dituzten sustapen-ekintzak.
- f) Antzerki- eta dantza-ikuskizun eszenikoak ekoiztea xede sozial ez duten entitateen garatzen dituzten sustapen-ekintzak.
- g) Helburu nagusizat emakumeak eta genero berdintasuna sustatzea duten proiektuak.
- h) Sexuaren araberako diskriminazioa egiten duten jarduerak edo proiektuak.

3. Gastu kontzeptu hauek soilik diruz lagunduko dira, eta aurrekontu banakatuko gastuen atalean jaso behar dira:

- a) Zabalkunde, publizitate eta propaganda gastuak, eta material grafikoa eta ikus-entzunezkoak editatzeko gastuak.

Gastu horien barruan bakarrik konputatuko dira kontzeptu hauei dagozkienak: material grafikoa editatzea; ikus-entzunezko materiala editatzea; web-orriak sortu, eguneratu eta mantentzea, bai eta komunikabideetan egindako publizitatea ere.

Publizitate-gastuei dagokienez, haien artean ez dira inoiz konputatuko publizitate-trukerako kontratuaren edo kontratu horren figura baliokide baten zioz sortutako gastuak; kontratu hori dela diru-laguntza eskatu duen erakundearen eta publizitate-zerbitzuak eskaintzen dituen erakundearen artean zuzenean itundua, dela azken erakunde horren eta erakunde eskatzailearekin loturaren bat edo partaidetzaren bat duen bitartekaritzako erakunde baten artean itundua.

- b) Kanpoko beste zerbitzu batzuen zioz (banaketa ...) sortutako gastuak

Gastu horien artean, eskatzailea ez den beste entitate batzuei eskatzailearen ikuskizunak sustatu eta/edo saltzeagatik ordaindutako kopuruak besterik ez da konputatuko, bai eta erakunde eskatzailearen langileei ikuskizunak sustatu eta/edo saltzeagatik egin duten lanaren kontraprestazio gisa esleitutako zenbatekoak ere. Kasu honetan, egindako ikuskizun edo emanaldiak direla-eta fakturatu den zenbateko osoaren %15 konputatuko da, gehienez.



Betiere, diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Banku-kontuen zorrek sortutako interesak.
- b) Korrituak, errekaruak, administrazio-zehapenak eta zigor-zehapenak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.
- d) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan.
- e) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorritak, beren-beregi kanpo utzitakoak.

4. Foru-dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea da; horregatik ez dira inoiz finantzatuko jardueren ondoriozko gastu guztiak.

## **2. oinarria.— *Pertsona eta erakunde onuradunak***

1. Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzak honako hauek jaso ditzakete: sozietate anonimoek, erantzukizun mugatuko sozietateek, sozietate kooperatiboez eta sozietate zibilek (Kode Zibileko 1669. artikulukoak izan ezik) eta enpresa-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek, baldin eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Alta emanda egotea EJJean, dagokion epigrafean: 965.1; 965.2; 965.3; 965.4.
- c) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea (sozietate zibil eta pertsona fisikoen kasuan izan ezik).

2. Sexua dela-eta inor baztertzearatik administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso duten erakundeek ezin izango dute dekretu honetan araututako deialdian parte hartu, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean; halaber, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua dela-eta debeku hori ezarri zaienak ere dekretu honek arautzen duen deialditik kanpo geldituko dira.

## II. TITULUA

### ARAUBIDE JURIDIKOA

## **3. oinarria.— *Aplikatu beharreko araudia***

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere guxtienez 5.000 euro badira.

**4. oinarria.— Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan ere.

**III. TITULUA  
PROZEDURA****5. oinarria.— Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoarekin bat, dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzen eskatzaileak behartuta daude Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2019ko ekainaren 17tik irailaren 16ra izango da, egun bi horiek barne.

**6. oinarria.— Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak**

1. Diru-laguntzaren eskabide espezifikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), eta bertan bete eta aurkeztu beharko dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Dokumentazio orokor eta espezifikoa hau erantsi beharko da:

- a) Erakunde eskatzailearen IFZren kopia. Pertsona fisiko batek NAN elektronikoa erabili bada eskabidea egiteko jarduteko ordezkari-tza-ahalordea aurkeztu beharko du.
- b) Estatutuen kopia edo erakundearen eraketa egiaztatzen duen dokumentazioarena, non egoitza soziala jasota egon behar den.
- c) Dagokion erregistroan inskribatuta daudela ziurtatzen duen agiria (sozietate zibil eta pertsona fisikoaren kasuan izan ezik).

Aurreko b) eta c) ataletan aipatutako agiriak erakunde hauek bakarrik aurkeztu beharko dituzte: sortu berri diren erakundeak, azken hiru urteetan aldaketak izan dituztenak, eta Kultur Ekintzako Zerbitzuan aurretik diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu ez dutenak.

- d) Banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta, alta edo aldaketaren bat egon bada, bakarrik.
- e) Diru-laguntza eskatu duen erakundearen ikuskizunak sustatzeko 2019ko ekitaldirako plana. Bertan, jaso beharrekoak izango dira diru-laguntzaren eskaera aurkeztu den egunera arte egindako atzezpeneen zerrenda eta 2019ko abenduaren 31ra arte aurreikusitakoak, honako hauek jasota:
  - 1) Ikuskizun eszenikoaren izenburua eta hizkuntza.
  - 2) Ikuskizunaren data.
  - 3) Antzezpenearen lekua. Lurralde Historikoan bada, udalerria zehaztu behar da; Estatuan bada, udalerria eta probintzia, eta atzerrian bada, herrialdea eta lekua.
  - 4) Egiaztatutako eta egiaztatu beharreko diru-sarrerak (BEZa kanpo), emanaldi bakoitzeko.
- f) Diru-laguntza eskatu duen erakundearen ibilbidearen deskripzio-memoria, besteak beste hauek aipatuko dituena:
  - 1) Pertsona edo erakunde eskatzailea zein urtetan hasi zen jardueran.
  - 2) Eskatzaileak zehazki zer jarduera egin duen hasi zenetik, hauek adierazita: Sozietate gisa eratu zenetik edo —pertsona fisikoaren kasuan— enpresa-jarduera egiten hasi zenetik, zenbat ikuskizun ekoiztu dituen antzerkiaren eta



dantzaren arloetan. Kopuru horretan, bakarrik hartuko dira kontuan gutxienez 10 emanaldi izan dituztenak.

Sozietate gisa eratu zenetik edo —pertsone fisikoen kasuan— enpresa-jarduera egiten hasi zenetik, zenbat ikuskizun ekoiztu dituen euskara hutsez antzerkiaren eta dantzaren arloetan. Haien artean, bakarrik hartuko dira kontuan eskabidea aurkeztutako egunera arte estreinatu direnak.

Halako sozietate gisa edo pertsona fisiko gisa 2015etik zenbat sari lortu dituen. Sarien ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

2018. urtean egindako jardueren zerrenda: berariaz adierazi behar da zer ikuskizun antzeztu den eta zein tokitan eta zein egunetan antzeztu den.

- g) 2019ko ekitaldian sektoreko topagune profesioletan parte hartu duela egiaztatzen duten agiriak.
- h) Erakundearen kasuan, erakundearen zuzendaritza- eta gobernu-organoko kideen kopurua jasotzen duen txostena; sexuaren arabera bereizi behar dira kideak, eta bereziki adierazi behar da emakumezkoa ala gizonezkoa den erakundeko burua. Zuzendaritza- eta gobernu-organoko idazkariak edo idazkari-lanetan diharduenak sinatuko du txostena.

3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, adierazi behar da zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrerak guztiak.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak, bai eta EJRen zer epigrafetan dagoen alta emanda egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

5. Halaber, eskaera hau sinatuta baimena ematen zaio Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

### **7. oinarria.— Eskabideak zuzentzea edo hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendu elektronikoa egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

### **8. oinarria.— Diru-laguntzak emateko araubidea**

Diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, eta, foru dekretu honen 9. oinarriz ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezarriko da.

**9. oinarria. — Diru-laguntzak ebaluatzeko irizpideak**

1. Diru-laguntzetarako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko eta diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko, epaimahai kalifikatzaileak ondorengo irizpideak eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

- a) Aurkeztutako sustapen-plana. Gehienez, 70 puntu emango dira, honela banatuta:
  - 1) Sustapen-planaren bidez zer eremutara eta zer jasotailerengana iritsi nahi den: 30 puntu, gehienez.  
2019ko ekitaldian antzeztu den edo antzeztuko den Espainiako estatuko probintziako edo lurralde historikoko puntu bat (1) emango da (Bizkaiko Lurralde Historikoa izan ezik), eta puntu bi (2) Espainiako estatutik kanpo herrialde bakoitzeko.
  - 2) Sustapen-plan osoaren gastu guztiak kontuan hartuta, argitalpen- eta publizitate-gastuek duten ehunekoa: 20 puntu, gehienez.  
Gastu horiek dekretu honen 1.3.a) oinarrian ezarritako moduan konputatuko dira.
  - 3) Sustapen-plan osoaren gastu guztiak kontuan hartuta, kanpoko beste zerbitzu batzuen ondoriozko gastuek (banaketa...) duten ehunekoa: 10 puntu, gehienez.  
Gastu horiek dekretu honen 1.3.b) oinarrian ezarritako moduan eta mugarekin konputatuko dira.
  - 4) 2019ko ekitaldian parte hartu duen sektoreko topagune profesionalak: 10 puntu, gehienez.
- b) Eskatzailearen ibilbidea. Gehienez, 30 puntu emango dira, honela banatuta:
  - 1) Eskatzaileak jardueran hasi denetik antzerki eta dantzaren arloetan ekoiztu dituen ikuskizunak, betiere gutxienez 10 antzezpene egin badira: 10 puntu, gehienez.
  - 2) Eskatzaileak jardueran hasi denetik euskara hutsean antzerki eta dantzaren arloetan ekoiztu dituen ikuskizunak, betiere eskabidearen aurkezpen-egunean dagoeneko estreinatu badira: 5 puntu, gehienez.
  - 3) 2018. urtean egin diren jardueren kopurua: 10 puntu, gehienez.
  - 4) Eskatzaileak 2015. urtetik lortu dituen eta agiri bidez egiazta ditzakeen sariak, konpainiari berari edo haren ekoizpenen bati emandakoak: 5 puntu, gehienez.

2. Epaimahai kalifikatzaileak lehen adierazi diren irizpideekin bat ebaluatuko ditu proiektuak, eta merezi duten erakundeei puntuazio altuenak emango zaizkie, baldin eta aurkeztutako dokumentazioaren bidez hala egiaztatzen badute, eta, puntuaziook oinarri hartuta, zuzeneko proportzioan emango zaie puntuazioa aurkeztutako gainerako proiektuei.

Epaimahaiaren iritziz 30 puntu gutxienez lortzen ez dituzten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

3. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako gastu guztien aurrekontu araztuaren %65 izango da.

Aurrekontu araztuaren zenbatekoak ezin izango du inoiz gainditu kopuru bi hauetako txikiena: ehun mila (100.000) euro edo 2019rako aurreikusitako jardueren ziozko fakturazioaren ehuneko hogeita hamar (%30).

**10. oinarria. — Aholkularitza**

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webean: <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

**11. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea**

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak diru-laguntzak puntuaziorik handienak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidari ezarritako zenbatekoa muga izanik. Epaimahaiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

**12. oinarria. — Ebazpena**

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa bezela, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Egiaztapen hori egin ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Euskara eta Kulturako foru diputatuak emango du ebazpena, horretarako izendatutako epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko zaie foru-agindua interesdunei.

Jakinarazpenean berariaz adieraziko da ezen ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsioa jar dezakeela haren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatuari zuzenduta. Horretarako, interesdunak hilabete (1) epea izango du, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Horrez gainera, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere aurkeztu ahal izango du, bi (2) hilabete (2) epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

**13. oinarria. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna**

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin (Bizkaiko Foru Aldundiak berak ematen dituenak izan ezik).

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin



bat eginda, inola ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Foru-dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Erregelamendu hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (352. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

Ondorioz minimis laguntza, guztira, ez da berrehun mila (200.000) euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

#### IV. TITULUA

#### DIRU-LAGUNTZAK KUDEATZEA ETA JUSTIFIKATZEA

##### 14. oinarria. — *Ordainketa*

1. Baldin eta deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar (10) egun baliodunak igarota erakunde onuradunak ez badio uko egiten beren beregi egoitzan agertzeko sistemaren bidez, orduan, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Deialdi honen ebazpena dela-eta onuradunen batek uko egiten badio emandako diru-laguntzari, horrek ez du berekin ekarriko ebazpenean jasota dauden eta onuradunei jakinarazi zaizkien diru-laguntzen zenbatekoak handitzea.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hamar (10) egun baliodunak igaro eta berehala, Kultur Ekintzako Zerbitzuak diru-laguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta, horretarako, erakunde onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

##### 15. oinarria. — *Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea*

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru-erakundeak aurretik eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Erakunde onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du diru-laguntza forala bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-laguntza itzultzeko arrazoia. Hori guztia itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginez adieraziko da.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara eta Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.



**16. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era**

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen pertsona eta erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. 2019an diru-laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 57. artikuluekin bat etorrita, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean justifika behar dute proiektua egin dela, hura emateko oinarri izan ziren baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren zenbateko araztuaren gastua jarduerari aplikatu zaiola. Horretarako, justifikazio-eredua aurkeztu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 2020ko otsailaren 28a baino lehen (egun hori barne), dokumentazio honekin batera:
  - a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria, jardueren betetze-maila adierazita.
  - b) 2019an egindako jarduera guztien zerrenda, hauek adierazita: lana, hizkuntza, lekua, data eta antzezpen bakoitzari dagozkion diru-sarrerak. Antzezpenak egin direla egiaztatzeko, bide hauek erabiliko dira:
    - 1) Egindako antzezpen bakoitzaren fakturaren kopia.
    - 2) Sinatutako kontratuen kopia, edo egindako antzezpenenak egiaztatzen dituzten beste agiri batzuenak; agiriok kontratatzaileak eman behar ditu; onargarriak izan behar dira Zuzenbidean, eta zehaztu behar dute jarduera egin dela eta zenbat ordaindu zaion enpresari.
  - c) 2019ko ekitaldiko BEZaren aitorpena-azken likidazioa.
  - d) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:
    - 1) Proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
    - 2) Gastu-partida bakoitzean, diru-laguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
    - 3) Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrendan jaso diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.
    - 4) Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen xehetasuna, eta, hala bada, finantzaketa propioarena ere bai. Xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da.
  - e) Diruz lagundutako gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztagiria aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkaturan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.
  - f) Proiektuaren jardueretako bakoitza gauzatzeko prestatutako esku-egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko eta informatikako materialak, baita beste edozein motatako agiri grafiko ere; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak



diru-laguntza eman duela. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 17. oinarriaren f) letran ezarritakoarekin bat etorrira. Betebehar hori laguntza eman zaiela jakinarazi ondoren egindako jardueri bakarrik dagokie.

**17. oinarria. – Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebehar batzuk**

Onuradunak betebehar hauek ere izango ditu:

- a) Jaso duen diru-laguntza osorik inbertitzea bere ikuskizun eszenikoen sustapenean.
- b) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitzaren bidez.
- c) Egoitzaren bidez jardueraren hasiera-data eta amaiera-data jakinaraztea diru-laguntza eman dion erakundeari. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko edo ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak betetzen laguntzea.
- d) Euskara eta Kulturako Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura arloko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- e) Euskara eta Kultura eta Ogasun eta Finantza sailek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatzeke egin dezaketen behar beste jardun onartzea.
- f) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenen esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:  
«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza / Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».  
Euskara hutsean garatutako proiektuetan, gainera, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da.
- g) EAEko hizkuntza ofizial biak erabiltzea diru-laguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundean, bai euskarri grafikoan bai ikus-entzunezko komunikabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak...).
- h) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negozioz kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- i) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- j) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsoneri buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.
- k) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari



aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.

- l) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea.
- m) Deialdi honi dagokionez, diru-laguntza foral baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamendua-ren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak.  
Onartutako azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa diruz lagundutako jardue-  
raren %90 izango da.
- n) Ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako arrazoiak. Bizkaiko Foru Ad-  
ministratioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen  
duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru  
Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Di-  
ru-laguntzen Erregelamendua-ren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gai-  
nerakoak.

#### **18. oinarria. — Itzulketa**

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharratariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Justifikatu beharra betetzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua bete ez bada.
- c) Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo foru dekretu honetan ezarritakoaren arabe-  
ra nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntza-  
ren zatia itzuli beharko da, sortutako berandutze-interesak ordaindu, Bizkaiko Foru  
Aldundiko Kultur Ekintza Zerbitzua horretarako errekerimendua egin ondoren.
- d) Proiektua egiteko epea bete ez bada.
- e) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- f) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen  
badira.
- g) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jaso-  
tzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

#### **19. oinarria. — Aurrekontuko partida**

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurre-  
kontu muga hau da:

Laurogei mila (80.000,00) euro, 2019ko ekitaldiko aurrekontuko 2007/0212 gas-  
tu-proiektuko 0405 G/334104/44300 aurrekontuko partidaren kargura.

2. Eskabide guztiak ebatzi ondoren emandakoa aurrekontuetako goreneko mugara  
helduko ez balitz, gastu-baimenaren deuseztapena tramitatuko da soberan den zenba-  
tekoan.



## AZKEN XEDAPENAK

**Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Ahalmena ematea***

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrear jartzea***

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 14an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ